



# Nafarroako oposizioak 2011 Maisu-maistren kidegoan sartzeko

DEIALDIAN ATERATAKO LANPOSTUAK

<b>ESPECIALITATEA</b>	<b>GAZTELANIA</b>	<b>EUSKARA</b>
INGELESA	80	20
PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA		6
ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA		6
EUSKARA A EREDUA		20
<b>GUZTIRA</b>	<b>80</b>	<b>52</b>



## KONTUTAN IZATEKO ZENBAIT GAI

Otsailaren 18ko 300/2011ko ebazpenaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko maisu-maistren kidegoan sartzeko eta kidego horretako karrerako funtzionarioek maisu-maistren kidegoan espezialitate berriak eskuratzeko otsailaren 18ko N.A.O. 34. zenbakian argitaratu da.

Izangaiek parte hartzeko eskabide bakar bat aurkeztuko dute, ondorengo agiriekin batera:

- ✓ Nortasun agiriaren fotokopia DIN-A4 paperean.
- ✓ Zinpeko aitortpena edo hitzematea diziplina zehapenik edo zigor penalik ez duela adierazten duena.
- ✓ Aukeratu nahi den espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordain agiria (40 euro). Tasak ordaintzetik salbuetsita daude %33ko edo hortik gorako ezgaituak eta gutxienez hilabete bat lehenagotik INEMen inskribaturik daudena.
- ✓ Maisu-Maistren tituluaren fotokopia, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakasle Diplomatuak, edo Lehen Hezkuntzako Maisua edo gradu titulua.
- ✓ Euskaraz eman beharreko lanpostuetarako eta Euskara espezialitaterako, Euskal Filologian Lizentziatua, Ega, Euskaltzaindia edo Hizkuntza Eskolako edo baliokideak diren tituluaren fotokopia.
- ✓ Eskaerarekin batera merezimenduen frogagiriak entregatu beharko dira.
- ✓ Ez da beharrezkoa izanen aurkezturiko agiriak ez originalak ez fotokopia konpultsatuak izatea. Hala ere, Administrazioak edozein unetan eska ditzake originalak.
- ✓ Giza baliabide zerbitzura zuzenduta.

Eskaintzen diren plazak **132** dira:

	<b>SARBIDE IREKIA</b>	<b>ELBARRIENTZAKO ERRESERBA</b>
<b>Audición y Lenguaje (vascuence)</b>	5	1
<b>Inglés (castellano)</b>	73	7
<b>Inglés (vascuence)</b>	18	2
<b>Pedagogía Terapéutica (vascuence)</b>	5	1
<b>Vascuence (Navarra)</b>	18	2
<b>Osotara</b>	<b>119</b>	<b>13</b>

INGELESA, eta EUSKARA espezialitatean proba dagokion hizkuntzan egin behar da.

Euskarazko espezialitateetan, salbu eta euskara espezialitatean, probak gaztelaniaz zein euskaraz egin daitezke.

Atzerriko izangaiek gaztelaniaren jakite-maila neurtzeko proba bat gainditu beharko dute, 200, gutxienez, hitzeko idazlana eta solasaldi bat epaimahaiarekin. Dena dela, gaztelania hizkuntza ofiziala duen herrialde bateko nazionalitatea dutenak proba hori egitetik salbuetsita egonen dira.

## **OPOSIZIO-LEHIAKETA**

Irakasle Funtzio Publikorako sarbide prozesua oposizio-lehiaketaren bitartez egingo da.

Oposizio Aldian proba bakarria egingo da, hainbat zatitan banaturik. Zati bakoitzari 0-10 bitarteko nota emango zaio eta ondoko taulan zehazten denaren arabera portzentaia emango zaio:

<b>ARIKETA BAKOITZAREN PISUA</b>			
<b>A</b>			<b>40%</b>
<b>B</b>	<b>B.1</b>	30%	<b>60%</b>
	<b>B.2</b>	30%	

Lehiaketa Aldira pasatzeko: probaren bukaerako nota  $\geq 5$

**Lehiaketa Aldian** merituak barematuko dira (irakasle lana, prestakuntza akademikoa eta etengabea eta beste merezimendu batzuk hatuko dira.

Oposizio-Lehiaketaren Bukaerako nota (0-10 puntu) honela lortuko dira:

$$\text{BUKAERAKO NOTA} = (\%60) \text{ OPOSIZIOA} + (\%40) \text{ LEHIAKETA}$$

- ✓ Izangaiak egindako Programazioa Epaimahaiari, honen aurrean aurkezteko ekitaldian, eman behar dio. Horretarako **ekainaren 1tik** aurrera izango da. **A** atala egin baino lehen izango da ekitaldi hau.

## **OPOSIZIO ALDIA/PROBA**

Oposizio Aldiko proba bi ataletan banatuko da eta ez dira baztertzailerak izanen. Bakarrik probaren bukaerako nota (0-10 puntu) argitaratuko da.

### **A ATALA:**

Irakaskuntzan aritzeko berariazko ezaguerak egiaztatu.  
Tribunalak gai-zerrendatik zozketaz ateratako hiru gaietatik bat idatziz garatzea.

Ariketa hau egiteko, **3 ordu** izango dituzte izangaiak.

Izangaien izena ezkutuan egonen dela bermatzeko, ariketa hau pliken bidez egingen da. A zatia 0 puntutik 10 puntura bitarte baloratuko da eta oposizioaldiko azken kalifikazioaren %40 egingen du.

### **Atal hau prestatzeko GAITEGI OFIZIALAK:**

- ✓ Hautapen prozedura honetan maisu-maistren kidegoko espezialitateei dagozkien indarreko gai zerrendak aplikatuko dira.
- ✓ 1993ko irailaren 9ko Aginduaren eranskina (1993ko irailaren 21eko Estatuko Aldizkari Ofiziala)
- ✓ Euskarazko espezialitatea: azaroaren 3an eman 374/1999 Foru Aginduaren I. eranskina (1999ko 158. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abenduaren 20koa).



## **B ATALA:**

Izangaiak duen gaitasun pedagogikoa eta irakasle lanean aritzeko behar diren teknikak noraino menderatzen dituen baloratuko da. Horretarako, programazio didaktiko bat aurkeztu beharko du eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu.

### **B.1) PROGRAMAZIO didaktiko baten aurkezpena, azalpena eta AHOZKO DEFENTSA:**

#### **Espezialitate guztiak:**

- ✓ Izangaiak prestatzen duen programazioa Epaimahaiari eman behar dio A atala egiteko deitzen dutenean.
- ✓ Programazio didaktikoa izangaiak aukeratu duen espezialitateari lotutako arlo baten curriculumari, Nafarroako Foru Komunitatean indarra dagoenari, buruzkoa izanen da.
- ✓ Bertan zehaztu beharko dira: helburuak, oinarrizko gaitasunen garapenari arloak ekartzen diona, edukiak, ebaluazio irizpideak eta metodologia, bai eta hezkuntza premia berariazkoak dituzten ikasleei laguntza emateko moduak ere.
- ✓ Programazio hau bat etorriko da curriculumaren garapenarekin ikasturte oso batez, espezialitate horretako maisu-maistrek irakasteko eskumena esleiturik daukaten hezkuntza etapetako maila batean.
- ✓ Gutxienez 12 unitate didaktiko zenbakitu eduki beharko ditu.
- ✓ Gehienez 50 orrialdeko luzera. DIN-A4 formatuan, alde bakar batetik idatziak.
- ✓ Izangaiari ez zaio prestatzeko denborarik emanen.
- ✓ Programazio didaktikoa epaimahaiaren aurrean ahoz azaldu eta defendatuko du. Gehienez ere 30 minutu izanen ditu. Epaimahaiko kideek noiznahi ere egiten ahalko dizkiote galderak izangaiari, hizketan ari dela.
- ✓ Izangaiak egokia iruditzen zaion material osagarria erabil dezake. Programazio didaktikoaren kopia bat ere eraman beharko du, aurkeztu zuena bezal-bezalakoa.

#### **Programazioa didaktikoa prestatzeko arautegia**

- ✓ 23/2007 F. D., martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duena (2007ko 51. N.A.O., apirilaren 25ekoa).
- ✓ Hezkuntza eta Kulturako kontseilariak martxoaren 31n emandako 63/1993 Foru Agindua, Haur Hezkuntzaren ebaluazioa arautzen duena.
- ✓ 24/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculuma ezartzen duena (2007ko 64. N.A.O., maiatzaren 23koa).
- ✓ Hezkuntzako kontseilariak ekainaren 13an emandako 93/2008 Foru Agindua, aniztasunari nola erantzun arautzen duena (2008ko 93. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALa, uztailaren 30ekoa).
- ✓ Hezkuntzako kontseilariak abenduaren 18an emandako 216/2007 Foru Agindua, Lehen Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu eta mailaz igotzeko arauak ematen dituena.

## Espezialitate batzuetarako berriazko kontuak.

### **Pedagogia Terapeutikoa**

Programazio didaktikoa kasu zehatz batean oinarrituko da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen artean hautatua. Prestatzeko, izangaiak bi aukera hauetako bat izanen du:

1. A.-Programazio didaktikoan Pedagogia Terapeutikoko irakasleak tutorearen eginkizunak burutuko ditu eta xede diren talde-klaseko ikasleak antolaketa egitura hauetan eskolaturik egonen dira: "Ikastetxe arrunta" (Haur eta Lehen Hezkuntzakoa) edo "Hezkuntza bereziko ikastetxea"
2. B.-"Laguntzarako" programazio didaktikoa, bereziki arlo instrumentalak garatzeko. Gela arruntean ari den ikasle bakarraren edo ikasle talde txiki baten beharretan oinarritu beharko da.

### **Entzumena eta Mintzamena**

Espezialitatean programazio didaktikoa ikasturte osorako jarduketa programa garatzeko izanen da. Berriazko beharrak dituzten ikasleen kasu zehatz batean oinarrituko da.

**Ingelesa:** Programazio didaktikoa ingelesez idatzirik egonen da eta hizkuntzen irakaskuntzarako tratamendu integratuan (TIL) eta edukien bidezko hizkuntzaren irakaskuntzan arreta berezia jarriko du.

**Euskara:** Euskara espezialitatean, programa didaktikoa euskaraz idatzirik egonen da eta Euskal Hizkuntza eta Literatura arloa A hizkuntza eremuan irakasteaz arituko da bakarrik. Hizkuntzen irakaskuntzarako tratamendu integratuan arreta berezia jarriko du

## **B.2) UNITATE didaktiko baten prestaketa eta aurkezpena**

Aurkezturiko programazioaren unitate didaktiko baten prestaketa eta ahozko aurkezpena egingen du, norberak zozketaz ateratako 3ren artean aukeratuta.

- ✓ Unitate didaktikoan zehaztu beharko dira: ikasketa-helburuak, edukiak, gelan garatu beharreko irakaskuntza-ikasketa jarduerak eta ebaluaziorako prozedurak, eta L. H.an kalifikatzeko irizpideak. Lortu nahi diren oinarritzko gaitasunak eta horien garapen maila zehaztu beharko dira.
- ✓ Unitate didaktikoa azaldu aurretik izangaiak **ordubete** izanen du prestatzeko. Norberak ekartzen duen eta egoki iruditzen zaion material laguntzailea erabil dezake ordu horretan.
- ✓ Azalpenean, egokia iruditzen zaion material osagarria erabil dezake, berak eramanda, baita gidoi bat ere (orri bat baino ez), ariketa bukatutakoan epaimahaiari eman beharko diona.
- ✓ Unitate didaktikoa azaldu eta defendatzeko, izangaiak **ordu erdi bat** izanen du gehienez.
- ✓ Epaimahaiko kideek noiznahi ere egiten ahalko dizkiote galderak izangaiari, hizketan ari dela.
- ✓ B.1. eta B.2. ariketak azaldu eta defendatu behar dituzten izangaiak ekitaldi bakar batean egingen dute epaimahaiaren aurrean, **ordu batean**.

## B.2) ariketa TXOSTEN batez ordezkatzea

**Unitate didaktiko** bat prestatu eta ahoz azaltzearen **ordez**, unitate didaktikoari buruzko ezagutza baloratzen duen **txosten bat** aurkeztea aukeratzen duten izangaiek (deialdiaren oinarriko 9.2.2 ataleko baldintzak betetzen dituztenak) horixe adierazi beharko dute parte hartzeko eskabidean dagokion laukian aukera hori, eta ezin izanen da aldatu eskabidea aurkeztu eta gero. Txosten hori Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eraturako batzordeek prestatuko dute.

**Txosten hau aukeratzen duenak probaren B.1. zatia ere egin behar du**, hau da, programazio didaktiko bat aurkeztu behar du, epaimahaiak horretarako deitzen duenean.

### Nortzuk eska dezakete txostena?

Baldintza hauek betetzen dituzten irakasleek:

- ✓ Bitarteko funtzionario edo kontratatu gisa zerbitzu aktiboan edo baimen berezian egon deialdia NAOn argitaratzen den egunean.
- ✓ Bitarteko funtzionario edo kontratatu gisa lanpostu berean 3 hilabete, gutxienez, etengabe zerbitzuak eman izana egiaztatzea, deialdia NAOn argitaratzen den egunean.

Amatasun baja egoeran dauden pertsonak ere eduki ahal izango dute txostena egiteko aukera, betiere azken baldintza hau betetzen badute, ekainaren 1a baino lehen.

### Noiz/nola eskatu txostena?

Izangaiek aukeratze-prozesuan parte hartzeko eskaera-idazkian horretarako dagoen laukian adierazi beharko dute aukera hori eta eskaera aurkeztu ondoren ezin izango dute aldatu. Zerbitzuen orria aurkeztu behar da, ari zaren Hezkuntza Departamentuak egina. Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ofizioz egingen du zerbitzuen orria.

### Non/noiz aurkeztu behar da unitate didaktikoa?

- ✓ Izangai onartuen behin betiko zerrenda argitaratu denetik 5 astegunetako epea izanen da aurkezteko. Norberak Hezkuntza Departamentura eramanez, adieraziko den tokian eta ordutegian.

### UNITATE DIDAKTIKOAREN ezaugarriak:

- ✓ Indarrean dagoen curriculumaren eta parte hartzen den espezialitatearen eta hizkuntzaren arabera izango da.
- ✓ Gutxienez, puntu hauek zehaztuko dira: lortu nahi diren helburuak, edukiak, gelan aurrera eraman beharreko irakatsi eta ikasteko jarduerak eta ebaluatzeko prozedurak. L.H.an kalifikatzeko irizpideak
- ✓ Unitate Didaktikoak gehienez 30 orri arte izan behar du, eranskinak barne, DIN A4 formatuan alde batetik bakarrik idatziak eta zenbaturik.
- ✓ Oinarrizko gaitasunen garapena eta hauei buruz ikasleek lortu behar duten lorpen maila.
- ✓ Hizkuntzetako espezialitateetan unitate didaktikoa dagokion hizkuntzan egingo da.
- ✓ Euskarazko espezialitate batekoa baldin bada, izangaiek euskaraz edo gaztelaniaz prestatzen ahalko dute.
- ✓ Espezialitate eta hizkuntza batean baino gehiagotan parte hartu nahi badu, unitate didaktiko bat aurkeztu beharko du espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko.

### Nork/nola baloratuko du txostena?

Hezkuntzako Departamentuak eraturako batzorde horiek maisu-maistren kidegoari dagokion sailkapen talde bereko edo goragoko kidegoetako irakasle funtzionarioek osatuko dituzte. Batzordekide horiek Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proposatuko ditu eta Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ebazpenaren bidez izendatuko dira.



Txostenek ondorengo **puntu hauek** izango dituzte oinarri:

**1.- Ikaskuntzaren helburuak** zehaztea.

- ✓ Helburuak teknikoki ondo formulatuta daude, koherenteak dira eta curriculum ofizialaren orokorrenak konkretatzen dituzte.
- ✓ Behar den kurtsora eta ikasleen ezaugarrietara egokituta daude.

**2.- Edukiak.**

- ✓ Edukien selekzioa bat dator helburuen proposamenarekin.
- ✓ Curriculum ofizialaren barruan daude eta egokiak dira proposatzen den kurtsorako.
- ✓ Haien formulazioa anitza da eta irizpide epistemologiko, testuinguruaren arabera koei eta funtzionalei ematen diete erantzuna.

**3.- Irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak.**

- ✓ Jardueren programazioa lagungarri da helburuak lortzeko eta proposatutako edukiak garatzeko balioko du.

- ✓ Motibagarriak, anitzak, zailtasunaren arabera mailakatuak eta ikasle gehienek egin ahal izateko modukoak dira.
- ✓ Aurreikuspenen arabera, baliabide didaktiko desberdinak erabiliko dira.

**4.- Ebaluatze prozedurak,** bitartekoak eta L.H.an kalifikatzeko irizpideak.

- ✓ Bat datoz proposatutako helburu, eduki eta jarduerekin.
- ✓ Anitzak eta malguak dira, ikasleen aniztasunera egokituta daude eta berreskuratzeko mekanismoak aurreikusten dituzte.

**5.- Oinarrizko gaitasunen** garapena.

- ✓ Unitate didaktikoak oinarrizko gaitasunei garatzen laguntzen die.
- ✓ Oinarrizko gaitasunetan lortutako maila Aurreko ataletako ebaluazioa egingo da, ondokoa adieraziz: EZ edo BAI (eta kasu honetan oso ondo, ondo, nahiko edo ez nahiko).

Epaimahaiak 0tik 10era bitarteko puntuazioa emango dio, probaren bukaerako nota lortzeko B.2) atalari ematen dion pisu berbera ematen baitio.

### LEHIAKETA ALDIA/MERITUAK

<b>GEHIENEZ 10 PUNTU</b>		
<b>MERITUAK</b>		<b>PUNTUAK</b>
<b>I. IRAKASKUNTZAKO ESPERIENTZIA (gehienez 7,000 puntu)</b>		
<b>I.1.</b> 1 urte aurkezten den kidegoan (ikastetxe publikoak) (Osatu gabeko urteak: 0,0583 puntu hileko)		0,700
<b>I.2.</b> 1 urte beste kidegoetan (ikastetxe publikoak) (Osatu gabeko urteak: 0,0292 puntu hileko)		0,350
<b>I.3.</b> 1 urte maila bereko irakaskuntza arautuetan (bestelako ikastetxeak) (Osatu gabeko urteak: 0,0125 puntu hileko)		0,150
<b>I.4.</b> 1 urte maila ezberdineko irakaskuntza arautuetan (bestelako ikastetxeak) (Osatu gabeko urteak: 0,0083 puntu hileko)		0,100
<b>II. PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA ETA ETENGABEKOA (gehienez 4,000 puntu)</b>		
<b>II.1.</b> Kidegoan sartzeko <u>baldintza orokor gisa</u> eskatutako <b>titulazioan izandako espediente akademikoa</b> . Batez-besteko nota horrela baloratuko da:		
<u>Otik 10 bitarteko eskala</u>	<u>Otik 4 bitarteko eskala</u>	
6tik 6,99 bitarte	1,5etik 1,99 bitarte	1,000
7tik 8,49 bitarte	2tik 2,74 bitarte	1,250
8,5etik 10 bitarte	2,75etik 4ra bitarte	1,500
<b>II.2. Gradu-ondokoa, Doktoretza eta aparteko sariak:</b>		
<b>II.2.1.</b> Baldintza ez den kasuetan, Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiri-Diploma (RD 778/1998) edo Master Titulu Ofiziala (RD 56/2005), Ikerketarako gaitasuna edo baliokidea den beste tituluren bat		1,000
<b>II.2.2.</b> Doktore Titulua		1,000
<b>II.2.3</b> Doktoretzan aparteko saria		0,500
<b>II.3. Bestelako unibertsitate-titulazio ofizialak</b> (aurkezteko baldintza ez direnak)		
<b>II.3.1.</b> Lehenengo zikloko titulazioak		1,000
<b>II.3.2.</b> Bigarren zikloko titulazioak		1,000
<b>II.4. Erregimen Bereziko Irakaskuntzetako eta Berariazko Lanbide Heziketako Titulazioak:</b>		
a) Musika edo Dantzako lanbide-titulua		0,500
b) Goi-mailakoa edo baliokidea den HEOko egiaztageria, EGA edo baliokidea		0,500

c) Goi-mailako Arte Plastiko eta Diseinuko Teknikari Titulua	0,200
d) Goi-mailako Lanbide Heziketako Teknikari Titulua	0,200
e) Goi-mailako Kirol Teknikari Titulua	0,200
<p><b>II.5. Etengabeko prestakuntza:</b>            Etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, aurkezturiko espezialitatearekin, edo hezkuntza-antolaketa, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriak, didaktika, hezkuntzako psikopedagogia edota soziologiarekin lotuta daudenean, bai Hezkuntza Administrazioak edota Unibertsitateek deitutakoak, bai etengabeko prestakuntza planak barne hartzen dituenak eta hezkuntza administrazioarekin kolaboratzen duten erakundeek antolatutakoak edota Hezkuntza Administrazioak onartzen dituen jarduerak:</p> <p>a) 3 kreditutik gora            b) 10 kreditutik gora</p> <p>Soilik Musika espezialitateari dagokionez, Musika Kontserbatorioek antolatutako ikastaroak modu bertsuan baloratuko dira. Atal honetan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten 20 ordu baino gehiagoko ikastaroak metatu ahalko dira.</p>	
	0,2000 0,5000
<p><b>III. BESTELAKO MERITUAK (gehienez 2,000 puntu)</b></p>	
<p><b>3.1. Argitalpenak (Gehienez 0,5):</b>            Espezialitatearen alderdi zientifikoei buruz, curriculumaren alderdi orokorrei buruz edo eskolaren antolaketari buruz egindako argitalpen zientifiko edo didaktikoak. I.S.B.N. edo I.S.S.N. direlakoak dituzten argitalpenak baizik ez dira baloratuko. Gehienez Lanen bat egile batzuen artean egiten bada, argitalpenari emandako puntuazioak egile kopuru osoarekin zatituko dira.</p>	
	0,250
<p><b>3.1. Hezkuntza proiektuetan parte hartzea (Gehienez 0,5):</b></p>	
a) Ikasturte bakoitzean parte hartzeagatik:	0,1000
b) Ikasturte bakoitza koordinatzeagatik:	0,2000
<p><b>3.3. Ingelesa ezagutzen duten egiaztapenen Titulazioak.</b>            (Gehienez 2 puntu)            Certificate in Advanced English (CAE), Certificate of Proficiency in English (CPE) Cambridge Unibersitatekoa, IELST 6.5-7.5 o IELST 7.5+. (Internacional English Language System) emana, TOEFL IBT 110 o TOEFL IBT 120 ziurtagiria (Test of English as a Foreign Language) ETS, IESE III o ISE IV (Integrated Skills in English) emana Trinity College London edo C1 (Hizkuntza Eskola Ofiziala) emana.</p>	
	2
<p>First Certificate in English (FCE) Cambridgeko Unibersitatekoa, IELTS 5.0-6.0 (International English Language System) IELTS emana, TOEFL IBT 87 (Test of English as Foreign Language) ziurtagiria ETS emana, ISE (Integrated Skills in English) Trinity College London emana.</p>	
	0,5000



**Merezimenduen baremo osoarendako xedapenak:**

1. Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik burutu eta ezarritako epean aurkeztu diren merezimenduak baizik ez dira baloratuko.
2. Gaztelaniara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak eta beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial propioan idatzitakoak, euskarazkoak izan ezik. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.
3. Irakasle lanean emandako zerbitzuak baloratzeko, kasu guztietan adierazi behar da zein kidego eta espezialitatetarako izendatu zen, baita zerbitzuak hasi eta bukatu zireneko data zehatzak ere.
4. Publikoak ez diren ikastetxeetakoak, Hezkuntza Ikuskatzaitza Zerbitzuaren oniritziarekin, bertan espezialitatea, hezkuntza maila eta zerbitzuen benetako iraupena ageri direla, hasi eta bukatu zireneko data zehatzak adierazita. Ziurtagiri horiei oniritzia emateko, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak interesdunei eskatuko die Gizarte Segurantzaren kotizazio ziurtagiria eta kontratuak aurkez ditzatela.